

# BALIO PROPOSAMENA

- **Ze behar edo arazo konpontzen duzue?**

Hainbat arazo konpontzeko aukera ematen digu zerbitzu honek; adibidez, erabili gabe ditugun testu liburu naiz irakurgaiak salmentan jartzeko aukera ematen digu, zakarrontzira bota beharrean birziklatu, hau da, beste norbaitek erabil ditzan. Hala ere, gure proiektuaren helburu nagusia, salmentan jarritako liburu horien bidez eskuratutako irabazia haurren hezkuntzaz arduratzen den gobernuz kanpoko erakunde bati ematen zaio haiek modu egokian diru hau kudea dezaten beste hainbat haurren hezkuntza baldintzak hobetzeko.

- **Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?**

Gainontzeko enpresengandik bereizten gaituen ezaugarri nagusia, guk irabazitako dirua, lehen aipatu bezala, behar dutenei laguntzeko erabiltzen dugula da.

Jendeak erabiltzen ez dituen liburuak eta zakarrontzira botatzeko asmoa dutenean, hauek berriz erabiliko ez dituztelako, guk geure webgunean hauek saltzeko aukera ematen diegu eta honela diru arazoak dituzten familiek adibidez, testu liburuak naiz irakurgaiak merke erosteko aukera izango dute eta gainera guk jasotako diru hori beste hainbat haurren hezkuntzan laguntzeko baliagarria izango da. Gure enpresak GKE batekin akordio bat izango du, erakunde horrek modu egokian guk jasotako diru administra dezan.

Gure zerbitzu honen bidez, liburuak birziklatzea lortzen dugu ere beste gauza askoren artean, askotan erosi, behin erabili eta gehiago behar ez ditugunez zakarrontzira botatzeko ohitura baitugu.

Gure produktuak eskuratzea oso erraza izango da, gure webgunean sartu besterik ez baita egin behar.

Gure enpresak zerbitzu hau egiteko posta zerbitzu arrunta erabiliko du hasiera batean behintzat liburuen banaketa egiteko denok ezagutzen dugun eta segurua den enpresa baita.

Produktuen prezioak saltzailearen, hau da, liburua salmentan jartzen duenaren baitan egongo da eta honek kontuan izan beharko du liburu hauen eroslea zein izango den eta bertatik lortutako dirua zertarako erabiliko de. Guzti honetarako zentzuzko prezio bat ezarri beharko da.